

## UGARRANDIA IGERILEKUETAKO IREKIERARI BURUZKO GUTUN INFORMATIBOA

Alkatetzatik bidali nizuen aurreko ohar informatiboan, pasa den 2021eko azaroko elurtearen eta abenduak euriteen ondorioz gure herrian jasan genituen ondorioak nabarmendu nituen.

Ezin dugu konparatu uretan beherako herrietan jasan zuten hondamendiarekin, baina Ugarrandiako kirol-instalazioetan sekulako hondamendia eragin zuten eta, gaur egun oraindik ere, hondatutako guztia ezin izan dugu konpondu eta/edo leheneratu.

Hainbat **arrazoi izan dira itxiera hain luzea izatea** eragin dutenak:

1. Instalazioak garbitzeko izan genuen zailtasuna. Hainbat pasa eman behar izan genituen gure langile guztiekin, urak kendu ondoren aurkitu genuen kaos, hondamendi eta zikinkeria egoerari aurre egiteko.
2. Instalazioa planteamendu berri batera egokitzea, ziurrenik gertatuko diren uholde berriei aurre egiteko moduan, 2 ordu baino gutxiagoan makinak eta elementu elektrikoak salbu jartzeko aukera emango duten gailuekin, eta urak kendu ondoren, 2 edo 3 egun baino behar ez izatea instalazioak berriro irekitzeko.
3. 2. eta 3. aretoetan trenkada tradizionalako konpartimentuak eraikitzea, antzeko gertaerak ditugun bakoitzean igeltserotza-lanak egin behar izatea saihesteko, uraren aurrean espazio estankokoak sortuz. Putzu berri bat, xukatzeko 2 ponparekin, lubeta gainetik sartzen den ur guztia ateratzeko gai izango dena, Arga ibaiaren ohiko maila baino 3,13 m gorago; izan ere, behin altuera hori igarota, ibaia kontrolik gabe doa, eta ezin diogu eutsi.

Apirilaren 1ean Ugarrandiako igerilekuak irekita ez izatearen arrazoa zera da, denbora gehiegi pasa dela behar genituen materialak eskuratzeko. Alde batetik, ura tratatzeko ponpek funtziona dezaten beharrezkoak diren osagai elektronikoak; eta bestetik, garraiolarien grebak eragindako atzerapenak, ponpen etorrera atzeratu baitu.

Instalazioa martxan jartzeko arduradunak elkartu ondoren, **igerilekuak jendearentzat irekitzeko data jar dezakegu: apirilaren 13a**. Espero dugu gehiago ez atzeratzea, oraindik ere hornidura batzuen zain baikalde eta aurreikusita baitago aste honetan iritsiko direla.

Era berean, esan behar dizuet Iruñerriko Mankomunitateak deitu nauela, Ezkabarte, Atarrabia, Burlata, Iruñea eta Barañango udallerriekin batera, datozen egunetarako Nafarroako Gobernuko arduradunekin eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin (CHE) bilera batera, Ibaiko Kontratu bat martxan jartzeko proposamena egiteko. Bertan, proiektuak eta etorkizuneko plangintza islatuko dira, Arga eta Ultzama ibaiek aurrerantzean horrelako hondamendirik eragin ez dezaten eta, aldi berean, haien ibaiertzetan gauden herri gisa bizi eta gozatu ahal izan dezagun.

Erakusten ari zareten elkartasuna, ulermena eta pazientzia eskatzen dizkizuegu berriro, baita udal-langileen lan guztia eskertzea ere, eta gertatutakoak bezalako gertaerak berriro pairatu behar ez izatea nahi dugu.

Agur bero bat  
Alfredo Arruiz Sotés  
Uharteko alkatea